

2018/10/23an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 23/10/2018.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

María Purificación Regidor Varela  
Maite Zubia Atxaga  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Maite Uribe Beristain  
Aitor Zubizarreta Alegria  
Aintzane Agiriano Errasti  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza  
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria , con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA4BY39>

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2018-07-24 eta 2018-09-27

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2018ko urriaren 17ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

## **3.- 2019. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO HASIERAKO**

**ONARPENA.** Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak, 2018ko urriaren 4an egindako bilera, 2019rako ordenantza fiskalei buruzko diktamena eman zuen.

Guztiok ezaguturik diktamenaren eduki osoa, Alkateak hitz egiteko txandari hasiera eman dio.

Josu Ezkurdiak labur azaldu du batzorde informatzaileak egiten duen proposamenaren edukia.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean onartzea 2019rako ordenantza fiskalen aldaketa I eranskinen aurreikusitako moduan.

**Bigarrena.-** Hartutako erabakiak jendurrean jartzea 30 egun baliodunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Hartutako erabakiak, Ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

## **4.- PATES ZUBIA S.L.-K EGINDAKO ESKAERA.**

2018eko uztailaren 9ko 726. zenbakiko Alkate erabakiz hirigintza lizentzia eman zitzaion PATES ZUBIA S.L. enpresari ondorengo obrak egiteko: Aingeru Guarda pasealekuko 17. zenbakian dagoen industria-pabilioian espazioaren banaketa berria egitea aldagelak, komunak eta atsedeen gunean jartzeko.

Irailaren 4an eta 7an sarrera emandako bi idazkiren bidez, Iker Zubia Fernandez de Landak, PATES ZUBIA S.L. enpresaren izenean, eskatu zuen baimendutako obrak egiteagatik sortutako zergan % 90eko hobaria ematea, horretarako zerga arautzeko indarrean dagoen ordenantza fiskalaren 5.3.3.4 artikuluan jasotako hobarian oinarrituz. Artikulu horrek honakoa jasotzen du hitzez hitz:

*5.3.3.4. Interes bereziko edo udal erabilerarako izendatzen diren eraikuntza, instalazio eta obretan (arrazoi sozial, kultural, historiko-artistiko edo lana bultzatzekoak direla medio) % 90eko hobaria emango da zerga honek kitatzen dituen kuotetan.*

*Udalbatzarraren esku dago izendapen hori egitea.*

Idazki bietan alegatzen dituen arrazoiak ikusi dira, laburbilduz, honako hauek:

- Obrak egiteko arrazoa instalazioa elikagaiak ekoizten dituzten instalazioetarako kalitate ziurtagiri berriek eskatutako baldintza teknikoetara eta izandako langile-gehikuntzara egokitzea izan da.
- PATES ZUBIA S.L.k bi lanpostu mugagabe berri sortu ditu 2018an.
- PATES ZUBIA S.L. herrian errotutako enpresa da, eta beste leku batera joan gabe egungo instalazioan jarraitzea erabaki du.
- Egindako inbertsioek lana sustatzen dute.

Zerga arautzen duen ordenantza fiskalak aurreikusten du % 90eko hobaria emango dela interes bereziko edo udal erabilerarako izendatzen diren eraikuntza, instalazio eta obretan (arrazoi sozial, kultural, historiko-artistiko edo lana bultzatzekoak direla medio).

Obra, eraikuntza edo instalazioa da interes berezikotzat edo udal erabilerarakotzat jo behar dena, hau da, hobaria obren ezaugarriengatik ematen da, eta subjektu pasiboak ez du inolako garrantzirik.

Interesa edo erabilera publikoa justifikatzeko arrazoiak, nagusiki, subjektu pasiboari buruzkoak dira, eta ez dira hori edo horren jarduera interes edo erabilera publikotzat jo behar, obra bera baizik.

726/2018 zenbakiko Alkate erabakiz baimendutako obra (Aingeru Guarda pasealekuko 17. zenbakian dagoen industria-pabilioian espazioaren banaketa berria egitea aldagelak, komunak eta atseden gunean jartzeko) ikusita, ezin daiteke ondorioztatu enpresaren beraren onura pribatua edo partikularra gainditu eta herriarentzat onura ukaezina dakartenik, obra horrekin,

eskatzaileak berak esaten duenez, instalazioa elikagaiak ekoizten dituzten instalazioetarako kalitate ziurtagiri berriek eskatutako baldintza teknikoetara egokitzea nahi baita.

Aurrez esandako guztia ikusita, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Aurrekarietan azaldutako arrazoiengatik, 726/2018 zenbakiko Alkate erabakiaren babesean egindako obrak interes eta erabilera publikotzat jotzeko eskaria EZ ONARTZEA, eta ondorioz, ez aitortzea eskatutako hobaria.

#### **5.-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOEN PROPOSAMENA 2019. URTERAKO.**

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Taxi zerbitzurako ondorengo tarifak baimentzea 2019rako:

1. Tarifa *			2. Tarifa **		
Abisaria	Egindako kilometroko	Itxaronaldia, orduko	Abisaria	Egindako kilometroko	Itxaronaldia, orduko
3,6513	1,1438	21,8449	3,6513	1,8244	34,3400

(\*) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(\*\*) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, II. tarifa aplikatuko da igandeetan eta erkidegoko eta herriko araudietan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, eta baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

**Bigarrena.-** Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari ematea indarrean dauden tarifak erabaki honen arabera aldatzeko.

#### **6.- MENDEKOTASUNAK PREBENITZEKO ARETXABALETAKO ETA ESKORIATZAKO UDALEN PLANA 2018-2023.**

Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Udal zerbitzu teknikoek 2018ko irailean egindako mendekotasunak prebenitzeko Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalen plana 2018-2023 onartzea.

#### **7.- “BERBALAGUNAK EGITASMOA” ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** “BERBALAGUNAK EGITASMOA” izeneko zerbitzua EUSKALTZALEEN TOPAGUNEARI esleitzea honako baldintzetan:

**Iraupena:** Zerbitzua 2018ko irailaren eta 2019ko ekainaren bitartean eskainiko da.

**Prezioa eta ordainketa epeak:** Zerbitzuaren prezio osoa 3.452,13 eurokoa izango da (BEZ barne) eta ordainketa epeak honako hauek izango dira: 1.150,71 € 2018an ordainduko dira, eta 2.301,42 €, 2019an. Emandako zerbitzuak hileroko ordainduko dira. Horretarako, esleipendunak aurrez faktura aurkeztu beharko du, zerbitzuko arduradunaren onarpena izan beharko duena.

**Txostenak:** Proiektuari buruzko balorazio txostena aurkeztu beharko da 2018ko abenduan eta 2019ko ekainean.

**Baldintza teknikoak:** Kontratu honen xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute. Beraz, kontratuaren xedea betetzeko herritarrekin eta udalarekin sortzen diren harreman guztiak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) euskara hutsean izango dira. Gainera, proiektua gauzatzeko Topaguneak kontratatuko dituen langileek, proiektuak euskaraz gauzatzeko behar besteko hizkuntza maila izan beharko dute.

**Bigarrena.-** 1.150,71 euroko gastua aurtengo aurrekontuaren 0400.226.335.00.08 partidaren kontu onartzea eta gainontzekoa, hau da, 2.301,42 €, 2019. urteko aurrekontuaren kontu.

**Hirugarrena.-** Ahalmena ematea Alkateari aurreko baldintzetan oinarritutako administrazio kontratua sina dezan.

#### **8.- “AUZOKO EGITASMOA” ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** “AUZOKO EGITASMOA” izeneko zerbitzua EUSKALTZALEEN TOPAGUNEARI esleitzea honako baldintzetan:

- **Iraupena:** Zerbitzua 2018ko irailaren eta 2019ko ekainaren bitartean eskainiko da.
- **Prezioa eta ordainketa epeak:** Zerbitzuaren prezio osoa 8.159,22 eurokoa izango da (BEZ barne) eta ordainketa epeak honako hauek izango dira: zerbitzuaren % 33a, hau da, 2.719,74 €, 2018an ordainduko dira, eta gainerako % 67a, hau da, 5.439,48, 2019an. Emandako zerbitzuak hileru ordainduko dira. Horretarako, esleipendunak aurrez faktura aurkeztu beharko du, zerbitzuko arduradunaren onarpena izan beharko duena.
- **Baldintza teknikoak:** Kontratu honen xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute. Beraz, kontratuaren xedea betetzeko herritarrekin eta udalarekin sortzen diren harreman guztiak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) euskara hutsean izango dira. Gainera, proiektua gauzatzeko Topaguneak kontratatuko dituen langileek, proiektuak euskaraz gauzatzeko behar besteko hizkuntza maila izan beharko dute.

**Bigarrena.-** 2.719,74 euroko gastua aurtengo aurrekontuaren 0400.226.335.00.08 partidaren kontu onartzea eta gainontzekoa, hau da, 5.439,48 €, 2019. urteko aurrekontuaren kontu.

**Hirugarrena.-** Ahalmena ematea Alkateari aurreko baldintzetan oinarritutako administrazio kontratua sina dezan.

## **9.- GALDE-ESKEAK.**

Aitor Zubizarretak bi galdera egin ditu:

### **9.1.- Udal kanposantura joateko bidean hartu beharreko neurriak Domu Santu egunean.**

Aitor Zubizarretak galdetu du Leterako bidean egiten ari diren obrak direla-eta, eta kontuan izanik Domu Santu egunean kanposantura jendea kotxez joango dela, neurririk hartu behar den.

Josu Ezkurdiak erantzun dio egun horretan udaltzaingo zerbitzua indartuko dela trafikoa zuzentzeko, eta jendeari eskatuko zaiola, ahal den neurrian, oinez joan dadila kanposantura. Horrekin batera, eta oinezkoei bidea errazteko, hesi bat jarriko da Olazarreko bidean.

### **9.2.- Udal Finantzaziorako Foru Fondoa.**

Prentsaren bidez jakin duela UFFFtik diru gehiago jaso behar dela esan ondoren, jaso behar den zenbatekoaz galdetu du Aitor Zubizarretak.

Horri erantzunez, Alkateak posta elektronikoz birbidali dio Gipuzkoako Finantza Kontseilutik jasotako informazioa, non honako aurreikuspenak jasotzen diren Eskoriatzarako:

- 2018ko aurrekontua: 2.690.288
- 2018ko aurrekontuaren itxiera: 2.790.663

- 2019ko aurrekontua: 2.871.823
- Aldakuntza: 81.159

Galdera horren ondorioz, Josu Ezkurdiak aurreratu du azaroan zehar aurkeztuko dutela 2019ko ekitaldirako aurrekontu proposamen bat.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 19:50ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## ANEXO

### **TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA**

#### **Honako hau dioen lekuan:**

3.1.- HOBARIAK: Ordenantza honetan aurreikusitako edozein hobari jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboak ondorengo baldintzak betetzea:

A.- Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B.- Pertsona fisikoen kasuan, Eskoriatzan erroldatuta egotea zergaren sortzapen-unean. Pertsona juridikoen kasuan, egoitza soziala Eskoriatzan izatea.

Ordainketa subjektu talde batek egin behar duenean (jabekideak eta abar), aplikatuko zaion hobaria talde horretako kideek baldintzok betetzen dituzten portzentajearen adinakoa izango da.

#### **Honako hau esatea:**

3.1.- HOBARIAK: Ordenantza honetan aurreikusitako edozein hobari jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboak ondorengo baldintzak betetzea:

A.- Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B.- Pertsona fisikoen kasuan, Eskoriatzan erroldatuta egotea zergaren sortzapen-unean. Pertsona juridikoen kasuan, egoitza soziala Eskoriatzan izatea.

Ibilgailua herentziaz eskuratu duten pertsona fisikoen kasuan, 12 hilabeteko epea izango dute, aurreko titularraren heriotzaren egunetik kontatzen hasita, zerga sortutako unean erroldatze baldintza betetzen zutela egiaztatzeko. Egoera hori egiaztatuta eta gainerako baldintzak betetzen baldin badira, aribideko ekitaldiko urtarriaren lelik aurreko eraginarekin aitortuko zaio hobaria.

Ordainketa subjektu talde batek egin behar duenean (jabekideak eta abar), aplikatuko zaion hobaria talde horretako kideek baldintzok betetzen dituzten portzentajearen adinakoa izango da.

### **ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA.**

#### **Lehenengo aldaketa:**

#### **8. artikulua. Honako hau dioen lekuan:**

Eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da zergaren oinarria. Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, behin-behineko kitapena egiteko aurkeztu beharreko aurrekontuan honako kostu hauek sartu beharko dira: materialak, proiektuko eta zuzendaritzako



*teknikarien ordainsariak, industria-irabaziak, gastu orokorrak, eta aldez aurretik egindako lan osagarriak (laguntza lanak).*

*Udal baimenik gabeko eraikuntzen, instalazioen edo obren kasuan, zerga oinarria udalak ezarriko du.*

**Honako hau esatea:**

*Zergaren oinarria da eraikuntza, instalazioa edo obra egitea benetan kostatzen dena; exekuzio materialaren kostua, alegia.*

Zergaren oinarrian ez dira sartzen BEZa eta erregimen berezietako antzeko zergak; tasak, prezio publikoak nahiz eraikuntzarekin, instalazioarekin edo obrarekin lotutako izaera publiko lokaleko ondarezko gainerako prestazioak; profesionalen ordainsariak; kontratistaren industria irabazia; ez eta exekuzio materialean sartzen ez den beste edozein kontzeptu.

*Udal baimenik gabeko eraikuntzen, instalazioen edo obren kasuan, zerga oinarria udalak ezarriko du.*

**Bigarren aldaketa: Hobariak**

**Honako hau dioen lekuan:**

5.3.3.5. *Kuotan %90eko hobaria izango dute igogailua jartzeko obrek, baldin eta eraikinak bi solairu edo gehiago baditu, bere erabilera nagusia etxebizitzatarako bada, eta instalazioa bat baldin badator berariaz egindako udal ordenantzan edota planeamenduan exijitzen diren baldintzekin. Hobari hauetarako eskubiderik ez da izango igogailu zaharren ordeztu berria jartzeko obrak direnean; ezta igogailua familiabakarreko edo familia biko etxeetarako denean ere (berdin da etxeak banakakoak edo atxikitakoak izan), eta oro har, ez dute eskubiderik izango promotore eta kontratistek egindako eraikuntza berrietan jarritako igogailuek (nahiz eta eraikuntza berria zaharraren ordeztu eraiki).*

*Aurreko paragrafoan esaten den ordenantza onartu bitartean, Udalbatzarra izango da eskuduna hobariak onartzeko, eta horretarako baldintza hauek bete behar dira:*

- *Igogailua eraikinaren barruan jarri beharko da.*
- *Obrek indarrean dagoen legeria bete beharko dute.*
- *Aukera guztien artetik, etxebizitzetara irisgarritasunik onena eskaintzen duen instalazioa jarri beharko da.*
- *Instalazioa inguruko antzeko eraikinetakoen antzekoa izan beharko da.*
- *Lurzoru publikoan eta lerrokaduretan ahalik eta txikiak izango dira kalteak.*

*Kasu bereziren batean, salbuespen gisa, hobari hau eman ahal izango da instalazioa eraikinetik kanpo egin arren, baldin eta gainerako baldintza guztiak betetzen badira.*

**Honako hau esatea:**

5.3.3.5. *Kuotan %90eko hobaria izango dute igogailua jartzeko obrek, baldin eta eraikinak bi solairu edo gehiago baditu, bere erabilera nagusia etxebizitzatarako bada, eta instalazioa bat baldin badator berariaz egindako udal ordenantzan edota planeamenduan exijitzen diren baldintzekin. Hobari hauetarako*

eskubiderik ez da izango igogailu zaharren ordez berria jartzeko obrak direnean; ezta igogailua familiabakarreko edo familia biko etxeetarako denean ere (berdin da etxeak banakakoak edo atxikitakoak izan), eta oro har, ez dute eskubiderik izango promotore eta kontratistek egindako eraikuntza berrietan jarritako igogailuek (nahiz eta eraikuntza berria zaharraren ordez eraiki).

Aurreko paragrafoan esaten den ordenantza onartu bitartean, Udalbatzarra izango da eskuduna hobariak onartzeko, eta horretarako baldintza hauek bete behar dira:

1. Igogailua eraikinaren barruan jarri beharko da.
2. Obrek indarrean dagoen legeria bete beharko dute.
3. Aukera guztien artetik, etxebizitzetara irisgarritasunik onena eskaintzen duen instalazioa jarri beharko da.
4. Instalazioa inguruko antzeko eraikinetakoen antzekoa izan beharko da.
5. Lurzoru publikoan eta lerrokaduretan ahalik eta txikiak izango dira kalteak.

Kasu bereziren batean, salbuespen gisa, hobari hau eman ahal izango da instalazioa eraikinetik kanpo egin arren, baldin eta gainerako baldintza guztiak betetzen badira.

#### **UR HORNIKUNTZA ESKAINTZEAGATIKO TASA**

Orokorrean, % 1,21eko igoera onartzea, kontsumitutako m<sup>3</sup>- bakoitzeko aurreikusten dugun Kontsurtzioaren igoeraren arabera. (arloko teknikariaren txostena-balorazioa aurkeztu da)

<b>Tarifa finkoa €/hiruhileko</b>	18,00/ 18, 20
-----------------------------------	------------------

<b>Tarifa aldakorra, kontsumoaren araberakoa, €/hiruhileko</b>	<b>€</b>
Kontsumo-tartea: 0 m <sup>3</sup> - 20 m <sup>3</sup> .....	<b>0,7126</b> 0,7212
Kontsumo-tartea: 21 m <sup>3</sup> - 60 m <sup>3</sup> 20 m <sup>3</sup> -tik gorako m <sup>3</sup> bakoitzeko .....	

	<b>1,1045</b>
	1,1183
Kontsumo-tartea: 61 m <sup>3</sup> - 90 m <sup>3</sup>	
60 m <sup>3</sup> -tik gorako m <sup>3</sup> bakoitzeko.....	<b>2,8504</b>
	2,8860
Kontsumo-tartea: 91 m <sup>3</sup> -120 m <sup>3</sup>	
90 m <sup>3</sup> -tik gorako m <sup>3</sup> bakoitzeko.....	<b>3,5980</b>
	3,6429
Kontsumo-tartea: 120 m <sup>3</sup> edo handiagoa	
120 m <sup>3</sup> -tik gorako m <sup>3</sup> bakoitzeko.....	7,1261
	7,2151

Oharra: m<sup>3</sup>-aren prezioa ezberdina da kontsumo tarte bakoitzeko. Beraz, ordaindu beharreko kuota kalkulatzeko, dagokion guztiaren batura egin beharko da.

*2.- Industria erabilera: etxeokak ez direnak, hala nola, industria, igerilekuak, tabernak, elkarteak eta abar.*

Hiruhileko kontsumoa	2018
Gutxieneko kuota (hiruhilero ordaindu beharrekoa) .....	<b>84,27</b> 85,32
Kontsumo-tartea: 0 m <sup>3</sup> - 60 m <sup>3</sup>	
Kontsumo-tartea: 61 m <sup>3</sup> - 150 m <sup>3</sup>	2,21

60 m <sup>3</sup> -tik gorako m <sup>3</sup> bakoitzeko.....	2,24
Kontsumo-tartea: 151 m <sup>3</sup> – 300 m <sup>3</sup>	
150 m <sup>3</sup> -tik gorako m <sup>3</sup> bakoitzeko.....	2,46 2,49
Kontsumo-tartea: 301 m <sup>3</sup> -tik gora	
300 m <sup>3</sup> -tik gorako m <sup>3</sup> bakoitzeko.....	2,56 2,59

**JARDUERA ZABALTZEKO ETA FUNTZIONAMENDUAN JARTZEKO LIZENTZIA EMATEAGATIKO EDO, HALA BALITZ, KONTROL JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIKO TASA**

*Bosgarren idatz-zatian aurreikusitako hobaria honela aldatzea:*

**Bosgarrena.-** %100eko hobaria emango da industria edo merkataritza jarduera berria jartzeko ~~lokala egokitzeke~~, jarduera horren sustatzaileak langabezian dagoela egiaztatzen badu. % 90eko hobaria emango da egun dagoen industria edo merkataritza jarduera baterako ~~lokala egokitzeke~~, jarduera horren sustatzaileak langabezian dagoela egiaztatzen badu. % 75eko hobaria emango da industria edo merkataritza jarduera berria jartzeko ~~lokala egokitzeke~~ hiri lurzoruan, edo landa lurzoruan kokatutako eta egun herrian egon dagoen jarduerarako ~~lokala egokitzeke~~, nahiz eta jarduera horren sustatzailea langabezian ez egon.

*Jarduera berria izango da tasa kitatzeko unean ez dena egiten udalerrian Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergako sailkapen berarekin.*

**HIRUGARREN BATEK ESKATUTA UDAL ADMINISTRAZIOAK EDO UDAL AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN DOKUMENTUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

*Honakoak sartzea:*

**A.- Tarifa berria**

EITen dokumentuak tramitatzea: 30 euro.

**B.- Hobaria**

5.- Jarduera lizentzia behar duten jarduera espedienteak	242,30€
7.- Aurrez jakinarazi beharreko jarduera espedienteak (lizentzia emandakoan.)	122,90 €

5. eta 7. puntuei buruzko tasetan ondorengo hobaria aplikatuko da:

**Bosgarrena.-** % 100eko hobaria emango zaio industria edo merkataritza jarduera berria jartzen duenari, langabezian dagoela egiaztatzen badu. % 90eko hobaria emango da egun dagoen industria edo merkataritza jarduera bada, eta jarduera horren sustatzaileak langabezian dagoela egiaztatzen badu. % 75eko hobaria emango da industria edo merkataritza jarduera berria bada hiri lurzoruan edo egun herrian egun dagoen jarduera izanik landa lurzoruan egiten bada, eta jarduera horren sustatzailea langabezian ez badago.

Jarduera berria izango da tasa kitatzeko unean ez dena egiten udalerrian Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergako sailkapen berarekin.

**KIROL INSTALAZIOAK ETA KIROL ZERBITZUAK ERABILTZEAGATIKO TASA**

KIROLDEGIKO TARIFAK 2019						
	ERROLDATUAK			EZ ERROLDATUAK		
	Hilabetekoa	Hiruhilekoa	Urtekoa	Hilabetekoa	Hiruhilekoa	Urtekoa
<b>BANAKAKOIA</b>						

6-18 urte	10,70 (1,73)	16,80 (16,87)	62,30 (62,38)	15,80 (15,85)	20,90 (20,96)	82,80 (82,83)
> 18 urte	15,80 (15,85)	36,30 (36,30)	114 (114,03)	20,90 (20,96)	41,40 (41,41)	145,20 (145,22)
Langabetuek (>3 hilabete)	15,80	20,90	-----	15,80	20,90	-----
Ikasleek (25 urte arte)	15,80	20,90	82,80	15,80	20,90	82,80
Ezgaituek (>% 33a)	15,80	20,90	82,80	15,80	20,90	82,80
> 65 urte*	15,80	20,90	82,80	15,80	20,90	82,80
> 80 urte*	-----	-----	-----	15,80	20,90	82,80
Kirol Elkartea		5,60 (5,62)			10,70 (10,73)	
<b>FAMILIAKOA:</b> 18 urtetik beherako seme-alabak, edo langabezian edo ikasten dauden 25etik beherakoak sartzen dira. 6 urtetik beherakoek, bazkide diren gurasoak badituzte, ez dute sarrerarik ordainduko.						
Normala	26 (26,07)	46,50 (46,53)	155,40 (155,45)	41,40 (41,41)	72,60 (72,61)	186,60 (186,64)
Familia ugaria, bikoteko bat langabezian (>3 hilabete), familia monoparentala edo 65 urtetik gorako bikoteak	23 (23,01)	38,30 (38,35)	124,20 (124,25)	36,30 (36,30)	52,10 (52,15)	140,10 (140,10)
Biak langabezian (>3 hilabete)	15,80	26	-----	15,80	26	-----
<b>AURRE MATRIKULA</b>	10,70	Hileko eta hiruhileko tarifa guztietan hasieran eta jarraipenik ez dagoenean.				

*\* >65 eta >80 urtekoak: Hileko eta hiruhileko abonuetan jubilatutako tarifa onartuko da abonua denbora horretan 65 edo 80 urte betetzen baldin badira. Urteko abonuan onartuko dira ere +65 edo +80 bezala adin hori urte naturalean betetzen dituztenak.*

<b>EGUNEKO SARRERRA</b>	
6-18 urte	3
> 18 urte	5
Langabetuak eta ezgaituak	3
<b>10 SARRERAKO BONOA</b>	
< 18 urte	25
> 18 urte	45
<b>100 SARRERAKO BONOA</b>	
	304
<b>BESTE BATZUK</b>	
Karneta berriztatzea edota ikastaroetarako karneta egitea	3
Dutxa	1,50

ALOKAIRUAK (ordu bete)	ERROLDATUAK		EZ ERROLDATUAK	
	Argi gabe	Argiarekin	Argi gabe	Argiarekin
Kiroldegiko kantxa	20	25	30	35
Kiroldegiko kantxa (egun osoa)	1012			
Kiroldegiko kantxa (egun erdia)	608			
Minifrontoia	5,50			
Pilotalekuko kantxa	5,50	10,50	7,50	12,50
Pilotalekuko gimnasioa	20,50			
Igerilekuko kale bat	51			
Igerileku osoa	202,50			

*Orduka alokatutakoan, bazkide ez diren parte hartzaileek sarrera ordaindu beharko dute.*

*Alokatzerakoan ordaindu beharreko fidantza:*

***Epe baterako alokairuak.***- Ordenantza fiskaletan lokal horretarako ezarritako hilabete bateko alokairuaren prezioa aurreratuko da, alokatutako udal lokala erabiltzeko epea amaitutakoan itzuliko dena.

***Unean uneko alokairuak.***- Ordenantza fiskaletan lokal horrentzako ezarritako tarifaren %10 ordaindu beharko da.

*Erreserbak kobratzeko modua eta baja eskaera*



*Kobrantzak hilaren azkenean kargatuko dira erabiltzaileak emandako kontuan.*

*Baja eman nahi denean, aurreko hilaren 25a baino lehen entregatu beharko da baja eskaera kiroldegian. Alokaturako instalazioa, aurrez baja eskatu gabe, ez erabiltzeak ez du salbuetsiko instalazio horretarako ezarritako prezio publikoa ordaintzetik.*

<b>Kirol ekintzen tarifak</b>	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
	HILEKO TARIFAK	HILEKO TARIFAK
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, <b>2 egun, 60'</b>	36,50	47
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, <b>2 egun, 45'</b>	27,50	34,50
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, <b>2 egun, 30'</b>	18,50	23,50
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, <b>egun 1, 60'</b>	18,50	23,50
Fitness, entrenamendu funtzionala (spininga, body tonoa, zumba, body balantzea) eta antzeko jarduerak, <b>2 egun, 60'</b>	31,50	41,50
Fitness, entrenamendu funtzionala (spininga, body tonoa, zumba, body balantzea) eta antzeko jarduerak, <b>2 egun, 45'</b>	25,50	32,50
Fitness, entrenamendu funtzionala (spininga, body tonoa, zumba, body balantzea) eta antzeko jarduerak, <b>2 egun, 30'</b>	16,50	21,50

Fitness, entrenamendu funtzionala (spininga, body tonoa, zumba, body balantzea) eta antzeko jarduerak, <b>egun bat, 60'</b>	16,50	21,50
Gazte ekintzak: spininga, zumba eta antzerakoak, <b>2 egun, 60'</b>	30,50	40,50
Gazte ekintzak: spininga, zumba eta antzerakoak, <b>egun bat, 60'</b>	15,50	20,50
<i>Erorikoen prebentzioa, 2 egun, 60'</i>	16,50	21,50
<i>Behar bereziak dituzten pertsonentzako gimnasia 2 egun, 60'</i>	16,50	21,50
Running, patinajea, nordic walkinga eta antzeko jarduerak, <b>2 egun, 60'</b>	31,50	41,50
Running, patinajea, nordic walkinga eta antzeko jarduerak, <b>2 egun, 45'</b>	25,50	32,50
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, <b>2 egun, 60'</b>	31,50	41,50
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, <b>2 egun, 45'</b>	25,50	32,50
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, <b>egun bat, 60'</b>		

	16,50	21,50
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, <b>egun bat, 45'</b>	12,50	14,50
Igeriketa umeak 2-4 urte, <b>egun bat, 30'</b>	9,50	11,50
Igeriketa umeak 2-4 urte, <b>2 egun, 30'</b>	18,50	23,50
Igeriketa umeak, <b>2 egun, 30'</b>	18,50	23,50
Igeriketa umeak, <b>egun bat, 60'</b>	18,50	23,50

1.- Plaza erreserbatuta geldituko da izen emate orria behar bezala beteta entregatutakoan.

Dokumentua posta elektronikoz bidali daiteke [kiroldegia@eskoriatza.eus](mailto:kiroldegia@eskoriatza.eus) helbidera.

2.- Ikastarorako ordaindutako dirua bakar-bakarrik jarduera ez bada egiten itzuliko da.

3.- Behin talde bat martxan hasiz gero hiruhilekoren batean, ikastaroa ikasturte osoan emango da, betiere, jarduera horretarako ezarritako jende kopuruaren %80a bermatzen bada gutxienez. Kontuan izango dira ikastaroan parte hartzen dutenen adina, jarduera bera beste orduren batean egotea, taldeak erabili behar zuen ordutegian egon daitekeen eskaintza, zenbat falta den ikasturtea amaitzeko eta ikastaroa nori zuzenduta dagoen.

4.- Baja eman nahi denean, aurreko hilaren 25a baino lehen entregatu beharko da baja eskaera kiroldegian.

5.- Alta hilaren lehenengo hamabostaldian eginez gero, ikastaroaren hilabete osoa kobratuko da. Aldiz, alta bigarren hamabostaldian eginez gero, hilabete erdia kobratuko da.

HASTAPENAK	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
2 saio (spininga, body tonoa, zumba, GAH, pilatesa, body balantzea...)	0	0
4 saio (pilatesa)	18,50	23,50

#### **BEHERAPENAK**

*Ikastaroetan parte hartzen duten 6 urtetik beherako haurren hilabeteko kuota, beraien arduradunetako bat bazkide bada, abonatuarena izango da.*

Fitness – wellness ekintzetan, 2. ekintzatik aurrera: %50eko beherapena merkeenean (ekintzetako bat, gutxienez, 2 eguneko izan behar da)

	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
5 egun, 5 ordu eguneko (6 – 12 urte)	30,50	34,50
9 egun, 4 ordu eguneko (13 – 16 urte)	50	61

\* Anai-arreba bakoitzeko 5 €-ko beherapena

#### **UDAL ONDASUNAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

##### **1. 1.- Kultur Etxeko aretoen prezio publikoa.**

**Erabilera edo egun bakarerrako lagapen zehatza, esate baterako, bilerak, hitzaldiak...**

*1.1. Erabilera publikoa (hezkuntza eta kulturaren inguruko ekintzak eta irabazi asmorik gabeko erakundeek ekintzak): doan*

1.1.2. Hileta zibilak: doan

1.1.3. Erabilera pribatua (ezkontzak eta irabazi asmoa duten erakundeetako ekintzak):

Egun osoa: 50 €.

Goiza edo arratsaldea: 25 €.

Kasu berezietan aretoa doan laga ahal izango da, egin beharreko jarduerak gizartearen interesekoak edo onura publikorako badira.

**1.2. Aldi baterako lagapena: udal lokal bat hainbat emanaldi zehatzetarako lagatzea. Lagapenaren denbora osoa, balizko luzapenak barne, urtebete baino gutxiagorako izango da.**

1.2.1. Erabilera publikoa (hezkuntza eta kulturaren inguruko ekintzak eta irabazi asmorik gabeko erakundeen ekintzak): doan

1.2.2. Erabilera pribatua (irabazi asmoa duten erakundeetako ekintzak):

Egun osoa: 50 €.

Goiza edo arratsaldea: 25 €.

Aretoa aldi baterako, hau da, denbora batean hainbat emanaldi emateko, alokatzen duen pertsonari edo taldeari % 60ra arteko hobaria egin ahal izango zaio, interesdunak aurrez horrela eskatzen badu, eta kultura batzorde informatzaileak aretoan egin beharreko ekintzak gizartearen interesekoak edo onura publikorako izateagatik horrela proposatzen badu.

**1.2.3. Legez eraturako irabazi asmorik gabeko talde eta elkarteei lokalak lagatzea jarduerak egiteko, jarduera horietan parte hartzeko izena ematea edota kuotak kobratu behar badira edota jarduerak irabaziak lortzeko baldin badira.**

Kasu horretan, kontraprestazioa lagapena egiterakoan zehaztuko da, eta ekonomikoa edo soziala izan ahal izango da.

**Ekonomikoa:** Tasa kobratuko da lokaleko argi, berogailu eta garbitasun gastuak ordaintzeko.

- 1 ordu astean: 20 € hileko.
- 2 ordu astean: 40 € hileko.

**Soziala:** Kultura departamentuak eta talde edo pertsona fisiko eskatzaileak adostutakoa.

**2.- Musika ekipoa eta bestelako udal ondasunak erabiltzearen prezio publikoa.**

A taldea: Eskoriatzako kultur eta kirol talde eta elkarteak, eta baita Eskoriatzako Udalarekin normalean elkarlanean aritzen diren beste erakunde edo administrazio publikoak ere.

B Taldea: Gainerako eskatzaileak, herrikoak nahiz kanpokoak.

*A taldekoek, hau da, Eskoriatzako kultur eta kirol talde eta elkarteek, eta baita Eskoriatzako Udalarekin normalean elkarlanean aritzen diren beste erakunde edo administrazio publikoak ere, udal ondasunak doan erabili ahal izango dituzte; horrela izan ezean, B taldeari ezarritako tasa aplikatuko zaie.*

*B taldearentzako 2019rako tarifak honako hauek dira:*

1. Musika ekipoa..... 180,00 €
2. Eszenarioa, m bakoitzeko 8,00 €
3. Aulkiak, bakoitzeko..... 0,50 €
4. Mahaiak, bakoitzeko..... 6,00 €
5. Karpa handia ..... 150,00 €
6. Karpa ertainak, bakoitzeko..... 60,00 €
7. Sutegiak, bakoitzeko ..... 15,00 €
8. Taloak egiteko mahaia ..... 200,00 €
9. Parrilla ..... 200,00 €
10. Estufak, bakoitzeko ..... 40,00 €
11. Eszenario txikia, modulu bakoitzeko ... 25,00€
- 12.- Interpretaritza maleta ..... 180 €

*Interesdunak tasa ordaintzetik salbuestea eskatzen badu, eta Kultura batzorde informatzaileak materiala erabiliko den ekintza gizartearen interesekoa edo herri-onurako dela proposatzen badu, Alkatetzak salbuespena onartu dezake.*

*Materialen egoera ikusita, kalterik izan badute konpondu egingo dira, eta kostea material eskatzailearen kontura izango da. Udalari ordaindu beharko dio konponketa.*

### **1º.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarla conforme, es aprobada el acta de las sesiones celebradas el 24 de julio de 2018 y el 27 de setiembre de 2018.

### **2º.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las Resoluciones de Alcaldía dictadas hasta fecha 17 de octubre de 2018.

### **3º.- APROBACION INICIAL DE LA MODIFICACION DE LAS ORDENANZAS FISCALES 2019**

La Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, en reunión celebrada el 4 de octubre de 2018, emitió dictamen sobre las Ordenanzas Fiscales para 2019.

Conocido por todos el contenido íntegro del dictamen, el alcalde abre el turno de intervenciones.

Josu Ezkurdia explica de forma breve el contenido de la propuesta que se eleva desde la Comisión informativa.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión informativa de Gobierno y Finanzas y el voto favorable de todos los corporativos presentes, Pleno ACUERDA:

**Primero:** Aprobar inicialmente para 2019 la modificación de las ordenanzas fiscales en los términos previstos en el Anexo I.

**Segundo:** Someter a información pública por el plazo de 30 días hábiles los acuerdos adoptados a efectos de reclamaciones y observaciones que pudieran deducirse.

**Tercero:** Los acuerdos adoptados y las modificaciones de Ordenanzas y sus Anexos devengarán definitivos sin necesidad de nuevo acuerdo si transcurrido el plazo reglamentario de la información pública no se hubiera producido reclamación alguna.

### **4º.-SOLICITUD CURSADA POR PATES ZUBIA S.L**

Por Resolución de Alcaldía N° 726, de fecha 9 de julio de 2018, se concedió a PATES ZUBIA S.L., licencia municipal para realizar las siguientes obras: *Ejecución de una nueva distribución*

*de espacios para ubicación de nuevos vestuarios, aseos y zonas de descanso en el pabellón industrial sito en Aingeru Guarda pasealekua Nº 17.*

Por sendos escritos con fechas de entrada 4 y 7 de setiembre, Iker Zubia Fernández de Landa solicita, en representación de PATES ZUBIA S.L. , se le conceda una bonificación del 90% en el impuesto devengado por la ejecución de las obras autorizadas, amparándose para ello en la bonificación prevista en el art. 5.3.3.4 de la vigente ordenanza fiscal reguladora del impuesto, en el que literalmente se prevé lo siguiente:

*5.3.3.4. Gozarán de una bonificación del 90% de la cuota del impuesto las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento de empleo que justifiquen tal declaración.*

*Será el Pleno del Ayuntamiento el órgano competente para resolver sobre dicha declaración.*

Vista las razones que alega en ambos escritos, y que a modo de resumen son:

- El motivo de la obras es la adecuación de la instalación a los requerimientos técnicos exigidos por las nuevas certificaciones de calidad para instalaciones productivas alimentarias, así como adecuar las instalaciones al incremento de personal.
- PATES ZUBIA Z.L. ha creado en 2018 de dos nuevos puestos de trabajo indefinidos.
- PATES ZUBIA Z.L. es una empresa con arraigo en la localidad y ha optado por continuar en la actual instalación en lugar de trasladarse a una nueva ubicación.
